

Prebentzioko beste neurri batzuk


Latexezko hesiak eta zaporedun preserbatiboak

1. Aho-hesiak latexezko edo poliuretanozko pelikulak dira, eta ahoaren eta bagina edo uzkiaren artean jartzen dira aho-sexuan.

2. Preserbatiboen kasuan bezala, ezinbestekoa da bilgarria kontuz ireki eta handik arretaz ateratzea aho-hesia.

3. Ezinbestekoa da aho-hesia jartzerakoan hark erabat hartzea baginaren edo uzkiaren zuloa. Kolore eta zapore desberdinetakoak daude.

4. Badaude, orobat, zaporeak eta koloreak dituzten preserbatibo maskulinoak edo kanpoan jartzekoak, ahoaren eta zakilaren arteko kontakturako direnak.



Honako hau izan kontuan

1. Lubrifikatzaileak erabiltzean murriztu egiten dira, neurri handi batean, preserbatiboa apurtzeko aukerak eta koitox errazagoa eta atseginagoa izan daiteke, baina kontuan izan behar da zer lubrifikatzaile mota erabiltzen den.

2. Preserbatiboak latexezkoak badira (halakoak dira maskulino edo kanpotik erabiltzeko gehienak), ur-oinarria duten edo uretan disolbatzen diren lubrifikatzaileak erabili behar dira bakarrik.

Ez dira inoiz erabili behar olio-oinarria duten lubrifikatzaileak (baselina, olio, izozkia, eskuetako krema...) latexari kalte egiten ahal diotelako. Alergia izanez gero latexari (edo ur-oinarria duten lubrifikatzaileei edo silikonazkoei), poliuretanoz egindako preserbatiboak erabiltzen ahal dira (olio-oinarria duten lubrifikatzaileekin erabiltzen ahal direnak).

3. Preserbatibo femeninoak nitrilozkoak dira eta, beraz, horiekin erabiltzen ahal dira ur- edo olio-oinarria duten lubrifikatzaileak.

4. Gaur egun zenbait lubrifikatzaile mota daude, kolore, lurrin eta zapore desberdinak dituztenak.

